

**URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ETA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, URAREN
KANONAREN % 5aren KUDEAKETARI BURUZKOA, HERRIALDE POBRETUEK
URA ETA SANEAMENDUA IZATEKO ESKUBIDEA BALIATZEA AHALBIDETUKO
DUTEN JARDUNAK FINANTZATZEKO**

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 10a

BILDU DIRA:

Iñigo Ansola Kareaga jauna, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusia eta Paul Ortega Etcheverry jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria.

ESKU HARTU DUTE:

Lehenak Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusi gisa eta Estatutuen 7.2.g) artikulua ematen dion eskuduntzaren arabera.

Bigarrenak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren izenean eta hura ordezkatzuz eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 11.2 e) artikulua ematen dion eskuduntzaren arabera.

ADIERAZI DUTE:

1. Ekainaren 26ko 1/2006 Legeak sorrarazi zuen Uraren Euskal Agentzia, ingurumen-arloko eskumena duen Sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publikoa, eta erakunde horren xedea Euskadiko ur-politika kudeatzea da.
2. Lege horretan bertan uraren kanona ezartzen da, honako helburu hauekin: ur-ingurunea babestea, lehengoratzeko eta hobetzeko; administrazio eskudunen arteko lankidetzaren sortzea, horniketa- eta saneamendu-zerbitzu eraginkorrak lortzeko; eta lurraldeen arteko elkartasuna erdiestea.

3.- Eusko Jaurlaritza Milurtekoko Adierazpenari 2004ko azaroaren 17an atxiki ondoren, eta hartutako konpromisoen adierazgarri gisa, Eusko Jaurlaritzak 2008ko uztailaren 29an egin zuen bileran, erabaki zuen uraren kanonaren ondorioz jasoko zenaren % 5aren baliokidea den zenbatekoko zuzkidura ekonomikoa sartzea Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan, eta zenbateko hori Garapenerako Nazio Batuen Programaren bitartez kudeatutako proiektuak finantzatzeko erabiltzea, Milurtekoko Garapen Helburuen artetik 7. Helburuaren 10. Jomuga sustatzeko (*2015. urterako erdira gutxitzea edateko ura modu iraunkorrean lortzeko biderik ez duten pertsonen ehunekoa*), ahal bada, Ura eta Saneamendua izateko Eskubidea baliatzea ahalbidetuko duten jardunetarako.

Erabaki horretan bertan, Jaurlaritzak Uraren Euskal Agentziari eskatu zion tresna berritzaile hori abian jartzeko behar diren lanak eta akordioak sustatzeko.

4.- Eskaera hori betetzeko, Uraren Euskal Agentziak, 2009. urteaz geroztik, BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMABOST MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA SEI EURO ETA LAUROGEITA HAMABOST ZENTIMO (555.646,95) zenbatekoa – 2009., 2010., 2011. eta 2012. urteetako kanonetatik eratortzen dena– bideratu du proiektu horietarako, eta aurreikusten du BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST MILA ETA HOGEITA HAMABI EURO ETA HIRUROGEITA BOST ZENTIMOKO (275.032,65) inbertsioa egingo duela, 2013ko eta 2014ko ekitaldiei dagokiena.

5. Bestalde, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (aurrerantzean eta aukeran GLEA) zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legean aurreikusita dago eta ekainaren 18ko 5/2008 Lege bidez sortu zen. Agentzia horren helburua garapenerako lankidetzari buruzko politikaren plangintza egitea da, baita hura koordinatu, kudeatu eta gauzatzea ere, herrialde pobretuetan pobreziaren aurka borrokatzeko eta giza garapen iraunkorra sustatzeko.

6. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu zuen Legearen bitartez, eta, zehazki, Lege horren 3.2 artikulua b) eta c) ataletan azaltzen diren aurreikuspenen bitartez, Agentzia horri agintzen zaizkion eginkizunen artean garapenerako lankidetzara bideratutako baliabide ekonomiko eta materialak Euskal Autonomia

Erkidegoaren Aurrekontuetan kudeatzea dago, baita jasotzen dituen funtsen (publikoak eta pribatuak) edozein transferentzia kudeatzea ere. Azken kasu horretan, transferentzia hori, baldin eta ohikoa bada, Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko bateko organo batetik baldin badator, garapenerako lankidetzarako funtsen ekarpen hori Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak kudeatuko du, hitzarmen bidez ezartzen diren baldintzen arabera.

7. Agentzia hori jarduerak gauzatzen hasi zenez geroztik, hau da, 2011ko urtarrilaren 1az geroztik, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-egituraren ordenamendua, garapenerako lankidetzaren alorrekoa, berriro eratu da, Agentzia sortu zuen Lege bidez Agentziaren xedea eta hari emandako eginkizunak gauzatu direlako.

8.- Horregatik, 2015eko uztailaren 21ean, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak beste Erabaki bat hartu zuen, eta Erabaki horren bitartez, 2008ko uztailaren 29an hartutako konpromisoa berresten du Kontseiluak eta ezartzen du Uraren Euskal Agentziak bildutako funts horiek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziara transferitu behar direla, 2015ean jasotzen denetik abiatuta, *"Hegoaldeko herrialde pobretuetan ura eta saneamendua izateko eskubidea baliatzea ahalbidetuko duten proiektuak finantzatzeko"*.

9.- Gainera, eskatzen du proiektu horietan bi Agentziek elkarrekin lan egin dezatela modu egituratuan, Uraren Euskal Agentziak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari aholkularitza teknikoa emanez *"bi alderdiek sinatuko duten hitzarmenaren bitartez uraren eta saneamenduaren alorrean Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak lagunduko dituen proiektuen esparruan"*.

10.- Horregatik, Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2015eko uztailaren 21eko Erabakia betetzeko, bi Agentzien arteko lankidetzara arautuko duen HITZARMEN hau formalizatu dute bi Agentziek, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENA.- HITZARMENAREN XEDEA.

Hitzarmen honen xedea da Uraren Euskal Agentziak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak herrialde pobretuetan ura eta saneamendua izateko eskubidea baliatzea ahalbidetuko duten proiektuak finantzatzen laguntzeko hartzen duten konpromisoaren baldintzak arautzea.

BIGARRENA.- URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ERANTZUKIZUNAK.

Uraren Euskal Agentziak honako hauek gauzatu beharko ditu:

1.- 2015eko ekitaldi honetatik aurrera, uraren kanonarengatik jasoko dela kalkulatzen denaren % 5 transferitzea urtero Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari.

Transferentzia hori hitzarmen honetako laugarren klausulan zehazten denaren arabera burutuko da.

2.- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin batera erabakitzea zenbateko horren erabilera, betiere Jaurlaritzaren Kontseiluak adostutako helburuen barruan.

3.- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia teknikoki aholkatzea Agentzia horrek uraren eta saneamenduaren alorrean laguntzen dituen proiektuen esparruan.

4.- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin batera eta modu antolatuan lan egitea uraren eta saneamenduaren alorreko garapenerako lankidetzaproiektuetan hitzarmen honen bitartez.

HIRUGARRENA.- GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN ERANTZUKIZUNAK

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak honako hauek gauzatu beharko ditu:

- 1.- Uraren Euskal Agentziak transferitutako zenbatekoa proiektuak finantzatzera bideratzea, aurreko klausulan xedatutakoaren arabera. Proiektu horiek ur-baliabideen kudeaketarekin eta edateko ura modu iraunkorrean lortzearekin lotuta egongo dira eta herrialde pobretuetan ura eta saneamendua izateko eskubidea baliatzea ahalbidetuko dute.
- 2.- Uraren Euskal Agentziarekin batera erabakitzea zenbateko horren erabilera, betiere Jaurlaritzaren Kontseiluak adostutako helburuen barruan.
- 3.- Uraren Euskal Agentziarekin batera eta modu antolatuan lan egitea uraren eta saneamenduaren alorreko garapenerako lankidetzaproiektuetan hitzarmen honen bitartez.

LAUGARRENA.- TRANSFERENTZIA GAUZATZEKO MODUA.

- 1.- Aurrekontu-ekitaldi bakoitzean, Uraren Euskal Agentziak, uraren kanonarengatik jasotzea espero duen zenbatekoa zehazten duenean, zenbateko horren % 5ari dagokion zenbatekoa transferituko ditu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziara.
- 2.- Transferentzia hori guztizko zenbatekoaren diru-sarrera bakar baten bitartez egingo da eta 2095 3178 37 1090970400 kontuan sartuko da. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia da kontu horren titularra.

BOSGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDE MISTOA.

1.- Hitzarmen honi jarraipena egiteko batzorde bat eratuko da. Batzorde hori lau ordezkari osatuko dute, hau da, Hitzarmen hau sinatu duen Agentzia bakoitzeko bi ordezkari eta honako eginkizun hauek beteko dituzte:

- a) Herrialde pobretuetan ura eta saneamendua izateko eskubidea baliatzea ahalbidetzen duten proiektuen artetik erabakitzea zer proiektutara bideratuko den uraren kanonarengatik jasotzea espero denaren % 5 horri dagokion zenbatekoa, betiere Jaurlaritzaren Kontseiluak adostutako helburuen barruan.
- b) Uraren eta saneamenduaren alorrarekin lotuta kudeatzen diren proiektuetan URA Agentziak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari zer laguntza tekniko emango dion adostea.
- c) Garapenerako lankidetzaren proiektuetan uraren eta saneamenduaren alorrean gauzatuko den baterako lan egituratua zehaztea.
- d) Hitzarmen honi jarraipena egitea eta hura kontrolatzea, elkarri informazioa ematea eta bakoitzak hartutako konpromisoak behar bezala betetzea ahalbidetzeko irizpideak eta moduak zehaztuz.
- e) Kasu bakoitzean eskatutako izapideen bizkortasuna oztopatzen duten eragozpenak ezaba daitezen ahalbidetzea.
- f) Hitzarmen honen xede diren jardunak betetzen direla bermatzeko behar diren neurrien berri ematea eta neurri horiek proposatzea.
- g) Hitzarmenak izan ditzakeen interpretazioko eta betearazpeneko arazoak konpontzen direla bermatzea.
- h) Oro har, alderdi sinatzaileek eskatzen dizkieten alderdiak koordinatzea eta haien berri ematea.

2.- Hitzarmenaren indarraldian eta alderdietako edozeinek eskatuta batzordea bildu egingo da jardunen martxa onerako beharrezkoa den guztietan. Batzordearen lehendakaritza eta idazkaritza txandakakoak izango dira. Biltzeko eta erabakiak hartzeko quorumak kideen ahobatezkotasunari dagozkionak izango dira.

3.- Hitzarmen honetan jarraipen-batzordeari dagokionez esanbidez aurreikusi ez den orori, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura

Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 11. tituluko II. kapituluaren kide anitzeko organoentzat aurreikusitako xedapenak aplikatuko zaizkio.

SEIGARRENA.- HITZARMENAREN ERREGIMENA ETA INTERPRETAZIOA.

1.- Hitzarmen hau administratiboa da, eta interpretatzeko eta garatzeko administrazio publikoen arteko lankidetzaren hitzarmenei aplikatzen zaien ordenamendu juridiko administratiboari lotu behar zaio.

2.- Hitzarmen honek edo hura betearazteak sorrarazitako interpretazio-arazoak jarraipen-batzordeak konponduko ditu aurreko klausulan esandakoari jarraiki, eta, hala ezin baliteke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 8.3 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

ZAZPIGARRENA.- HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA.

1.- Hitzarmenak ez dakar esku hartzen duten alderdiek beren eskumenei uko egitea ezta horiek aldatzea ere, eta hitzarmenaren indarrez hartzen dituzten konpromisoak lotutako erantzukizunak bakarrik hartzen dituzte beren gain.

2.- Hitzarmenak ondorioak izango ditu eta esku hartzen duten alderdiak behartuko ditu hitzarmena sinatzen denetik aurrera, eta gai horri buruzkoa den 2015eko uztailaren 21eko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia indarrean dagoen bitartean iraungo du.

ZORTZIGARRENA.- HITZARMENA BERRIKUSTEA ETA IRAUNGITZEA

1.- Hitzarmena berrikusiko da 2015eko uztailaren 21eko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia aldatzen bada edo Agentzia bakoitzak esleituta dituen eskumenak aldatzen badira.

2.- Hitzarmena iraungiko da aipatutako Erabakia ondoriorik gabe geratzen bada edo Ebazpen bidez.

3.- Alderdietako batek onartutako konpromisoak betetzen ez baditu, beste alderdiak onartutako konpromisoak zorrozki betetzea eskatzeko edo Hitzarmena iraungitzeko eskubidea izango du.

Hitzarmena iraungitzen bada, alderdiek zehaztuko dituzte egikaritzen ari diren jardunak amaitzeko eta ordaintzeko baldintzak.

Ados daudela adierazteko, alderdiek dokumentu honen bi ale sinatu dituzte goiburuan adierazitako tokian eta egunean.


GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO


Stua.: Paul Ortega Etcheverry jauna
Garapenerako Lankidetzaren Euskal
Agentziaren zuzendaria


URAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO
DIRECTOR GENERAL


Stua.: Iñigo Ansola Kareaga jauna
Uraren Euskal Agentziaren zuzendari
nagusia

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA Y LA AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO RELATIVO A LA GESTIÓN DEL 5% DEL CANON DEL AGUA PARA LA FINANCIACIÓN DE ACTUACIONES QUE FACILITEN EL DISFRUTE DEL DERECHO AL AGUA Y AL SANEAMIENTO EN PAÍSES EMPOBRECIDOS

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de noviembre de 2015

REUNIDOS

El Sr. D. Iñigo Ansola Kareaga, Director General de la Agencia Vasca del Agua y el Sr. D. Paul Ortega Etcheverry, Director de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

INTERVIENEN

El primero de ellos, en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de los Estatutos.

El segundo, en nombre y representación de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 11.2 e) de la Ley 5/2008, de 19 de junio, por la que se crea y regula la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

EXPONEN

1. Por Ley 1/2006, de 26 de junio, se creó la Agencia Vasca del Agua, como ente público de Derecho privado adscrito al Departamento competente en materia de medio ambiente, cuyo objeto es llevar a cabo la política del agua en Euskadi.
2. La misma Ley establece el canon del agua, destinado a la protección, restauración y mejora del medio acuático, a la colaboración con las administraciones competentes para el logro de unos servicios eficientes de suministro y saneamiento y a la obtención

de la solidaridad interterritorial, encomendando su gestión a la Agencia Vasca del Agua.

3.- Tras la adhesión del Gobierno Vasco a la Declaración del Milenio el 17 de Noviembre de 2004, y como muestra de los compromisos adquiridos, aquél, en su sesión de 29 de julio de 2008, acordó incluir en los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, una dotación económica por cuantía equivalente al 5% de lo estimado recaudar por el canon del agua, y destinarlo a financiar proyectos gestionados a través del Programa de Naciones Unidas para el Desarrollo, para la promoción de la Meta 10 del Objetivo 7 de los Objetivos de Desarrollo del Milenio (*reducir a la mitad, para el año 2015, el porcentaje de personas que carezcan de acceso sostenible a agua potable*), preferentemente para actuaciones que faciliten el disfrute del Derecho al Agua y al Saneamiento.

En el mismo Acuerdo el Gobierno instaba a la Agencia Vasca del Agua a impulsar los trabajos y acuerdos necesarios para poner en marcha este innovador instrumento.

4.- En cumplimiento de esta petición, la Agencia Vasca del Agua ha destinado a estos proyectos, desde el año 2009, la cantidad de QUINIENTOS CINCUENTA Y CINCO MIL SEISCIENTOS CUARENTA Y SEIS EUROS CON NOVENTA Y CINCO CÉNTIMOS (555.646,95) procedentes de los cánones de 2009, 2010, 2011 y 2012, y tiene prevista la inversión de DOSCIENTOS SETENTA Y CINCO MIL TREINTA Y DOS EUROS CON SESENTA Y CINCO CÉNTIMOS (275.032,65) correspondientes a los de los ejercicios de 2013 y 2014.

5. Por su parte, La Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, en adelante AVCD, es un ente público de derecho privado, previsto en la Ley 1/2007, de 22 de febrero, de Cooperación para el Desarrollo, y creado por la Ley 5/2008, de 18 de junio, que tiene como objeto elaborar la planificación de la política de cooperación para el desarrollo, así como de la coordinación, gestión y ejecución de la misma, en orden a luchar contra la pobreza y promover el desarrollo humano sostenible en los países empobrecidos.

6. Entre las funciones que la AVCD tiene encomendadas por su ley de creación, en concreto por las previsiones contenidas en los apartados b) y c) de su artículo 3.2. está la de gestionar los recursos económicos y materiales destinados a la cooperación

para el desarrollo en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como cualesquiera otras transferencias de fondos, públicos y privados, que reciba. En este último caso, cuando esta transferencia, con carácter regular, proceda de un órgano de otra administración pública del País Vasco, esa aportación de fondos para cooperación para el desarrollo será gestionada por la AVCD según los términos que, por convenio, se señalen.

7. Tras el inicio de actividades de esta Agencia, el 1 de enero de 2011, se ha reconfigurado el ordenamiento de la estructura institucional del Gobierno Vasco en materia de cooperación para el desarrollo, al hacerse efectivos el objeto y las funciones otorgadas a aquélla por su Ley de creación.

8.- Por ello, el pasado 21 de julio de 2015, el Consejo de Gobierno Vasco adopta un nuevo Acuerdo a través del cual se reafirma en el compromiso acordado el 29 de julio de 2008 y dispone que esos fondos recaudados por la Agencia Vasca del Agua se transfieran, a partir de lo recaudado en 2015, a la AVCD *“para financiar proyectos que faciliten el disfrute del derecho al agua y al saneamiento en los países empobrecidos del Sur”*.

9.- Además, insta al trabajo conjunto y articulado entre ambas Agencias, en estos proyectos, mediante la prestación por parte de la Agencia Vasca del Agua de asesoría técnica a la AVCD, *“en el marco de los proyectos que esta última acompañe en materia de agua y saneamiento a través del convenio que se firmará entre ambas partes”*.

10.- Por ello, a fin de dar cumplimiento del Acuerdo del Consejo de Gobierno de 21 de julio de 2015, las dos Agencias proceden a la formalización del presente CONVENIO que regulará la colaboración entre ambas, con arreglo a las siguientes:

CLÁUSULAS

PRIMERA.- OBJETO DEL CONVENIO.

Constituye el objeto del presente convenio regular las condiciones en las que la Agencia Vasca del Agua y la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo se comprometen a colaborar para la financiación de proyectos que faciliten el disfrute del derecho al agua y al saneamiento en los países empobrecidos.

SEGUNDA.- RESPONSABILIDADES DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA.

La Agencia Vasca del Agua deberá:

1.- Transferir cada año, a partir del presente ejercicio 2015, a la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo el 5% de lo estimado recaudar por el canon del agua.

Esta transferencia se llevará a cabo conforme se detalla en la cláusula cuarta del presente convenio.

2.- Decidir, conjuntamente con la AVCD, el destino de dicha cantidad, siempre dentro de los fines acordados por el Consejo de Gobierno.

3.- Asesorar técnicamente a la AVCD en el marco de los proyectos que esta última acompañe en materia de agua y saneamiento.

4.- Trabajar de manera conjunta y articulada con la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, en proyectos de cooperación para el desarrollo en materia de agua y saneamiento a través del presente convenio.

TERCERA. – RESPONSABILIDADES DE LA AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO.

La Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo deberá:

1.- Destinar la cantidad transferida por la Agencia Vasca del Agua, según lo estipulado en la cláusula anterior, a la financiación de proyectos que, vinculados a la gestión de recursos hídricos y el acceso sostenible al agua potable, faciliten el disfrute del derecho al agua y al saneamiento en los países empobrecidos.

2.- Decidir, conjuntamente con la Agencia Vasca del Agua, el destino de dicha cantidad, siempre dentro de los fines acordados por el Consejo de Gobierno.

3.- Trabajar de manera conjunta y articulada con la Agencia Vasca del Agua, en proyectos de cooperación para el desarrollo en materia de agua y saneamiento a través del presente convenio.

CUARTA. – MODO DE HACER EFECTIVA LA TRANSFERENCIA.

1.- En cada ejercicio presupuestario, la Agencia Vasca del Agua, una vez determine el importe estimado recaudar por el canon del agua, procederá a transferir a la AVCD el importe correspondiente al 5% de dicha cantidad.

2.- Dicha transferencia se realizará mediante un único ingreso por la totalidad del importe, y se ingresará en la cuenta 2095 3178 37 1090970400, de la que es titular la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

QUINTA.- COMISIÓN MIXTA DE SEGUIMIENTO.

1.- Se constituirá una comisión de seguimiento del presente convenio compuesta por cuatro representantes, dos por cada una de las Agencias firmantes para el desempeño de las siguientes funciones:

- a) Decidir a qué proyectos que faciliten el disfrute del derecho al agua y al saneamiento en los países empobrecidos se destinará el importe correspondiente a ese 5% de lo estimado recaudar por el canon del agua, siempre dentro de los fines acordados por el Consejo de Gobierno.

- b) Acordar el acompañamiento técnico que URA proporcionará a la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo en los proyectos que se gestione relacionados con la materia del agua y el saneamiento.
- c) Determinar el trabajo conjunto y articulado en proyectos de cooperación para el desarrollo en materia de agua y saneamiento.
- d) Llevar a cabo el seguimiento y control del presente convenio, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.
- e) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.
- f) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente convenio.
- g) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el convenio.
- h) En general, coordinar e informar sobre aquellos aspectos que les sean requeridos por las partes firmantes.

2.- Durante la vigencia del convenio y a propuesta de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones, siendo rotatorias la presidencia y la secretaría de la misma. Los quórum de reunión y de adopción de acuerdos serán los de unanimidad de sus miembros.

3.- En lo no previsto expresamente en el convenio para la comisión de seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en el capítulo II del título 11 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

SEXTA.- REGIMEN E INTERPRETACION DEL CONVENIO.

1.- El presente convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas.

2.- La resolución de los problemas de interpretación que puedan plantear el presente convenio o su ejecución serán resueltos por la comisión de seguimiento según lo

referido en la cláusula anterior; si no fuera posible, se estará a lo dispuesto en el artículo 8.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

SÉPTIMA.- EFECTOS Y DURACIÓN DEL CONVENIO.

- 1.- El convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.
- 2.- El convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma, y durará mientras se mantenga vigente el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 21 de julio de 2015 del que trae causa.

OCTAVA.- REVISIÓN Y EXTINCIÓN DEL CONVENIO.

- 1.- Se procederá a revisar el convenio si se modifica el referido Acuerdo del Consejo de Gobierno de 21 de julio de 2015 o varían las competencias que tiene atribuidas cada una de las Agencias.
- 2.- El convenio se extinguirá si queda sin efecto el reiterado Acuerdo o bien por resolución.
- 3.- El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, o para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución del convenio.

En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución.

En prueba de conformidad las partes firman el presente documento, por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

G GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA

Fdo. Sr. Paul Ortega Echeverry
Director de la Agencia Vasca de
Cooperación para el Desarrollo

ZUZARREKIN
URTEKORAKO
AGENTZIA

U.ura
URTEKORAKO
AGENTZIA

Fdo. Sr. D. Iñigo Ansola Kareaga
Director General de la Agencia
Vasca del Agua

